

8. ERANSKINA: Osasun kalifikazioa duen ustiapena:

Behi ustiapenak osasun aldetik ofizialki kalifikatzen dira, alde batetik, behi aziendaren tuberkulosia, behi aziendaren bruzelosia eta behien leukosi enzootikoa gaixotasunak gabekoak eta, bestaldetik, behien perineumonia kutsakorra gabekoak. Osasun kalifikazioak laburduren bidez adierazi daitezke:

Behi aziendaren bruzelosia gaixotasunarekiko ofizialki kaltegabea den ustiapena: (B4)

Behi aziendaren tuberkulosia gaixotasunarekiko ofizialki kaltegabea den ustiapena (T3)

Behien leukosi enzootikoa ofizialki gaixotasunarekiko ofizialki kaltegabea den ustiapena (L3)

Hausnarkari txikien ustiapenek ofizialki bruzelosi gaixotasunik gabeko osasun kalifikazioa dute. Osasun kalifikazioak laburduren bidez adierazi daitezke:

Ardi eta ahuntz aziendaren bruzelosia gaixotasunarekiko ofizialki kaltegabea den ustiapena: M4

Txerri ustiapenek ofizialki Aujeszky gaixotasunik gabeko osasun kalifikazioa dute. Osasun kalifikazioak laburduren bidez adierazi daitezke:

Aujeszky gaixotasunarekiko ofizialki kaltegabea den ustiapena: A4

Ustiapeneko osasun kalifikazioari buruz edozein zalantza edukiz gero, ustiapenaren kokapenaren arabera dagokion eskualdeko bulegora zuzenduko da abeltzaina, eta bulego horretan bere kalifikazioa adieraziko diote.

Halaber, ustiapeneko albaitariak azalduko dio zergatik ez duen osasun kalifikazioa betetzen eta, halaber, kalifikazio hori lortzeko jarraibideak emango dizkio.